



## I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

### Euskara, Kultura eta Kirol Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 16ko 172/2023 Foru Dekretuaren laburpena. Horren bidez, 2023ko irailaren 12tik 2024ko irailaren 11ra bitartean kirol prestakuntza gainditu duten kirol teknikarientzat Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak ematen dituen beken oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. BDNS (Identif.): 727847.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvencioes.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/727847>).

#### **Lehena. — *Pertsona onuradunak***

Foru dekretu honetan araututako beken onuradun izan daitezke, baldin eta onuradun ez izateko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ere ez badaude, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Etenik gabe 2023ko urtarrilaren 1etik Bizkaiko Lurralde Historikoan errolaturik egotea.
- Erregimen bereziko kirol ikasketetako prestakuntza,aldi baterako erregimeneko prestakuntza zein eskola-kiroleko monitore laguntzaile prestakuntza jarduerak gainditzea 2023ko irailaren 12tik 2024ko irailaren 11ra, egun biak barne.

#### **Bigarrena. — *Xedea***

Deialdiaren xedea da kirol ikasketetarako sarbide-proba, erregimen bereziko ikasketen, aldi baterako ikasketen, zein eskola-kiroleko monitore laguntzaile ikasketen kasuan matrikularen gastuak partez finantzatzea, betiere ikasketok 2023ko irailaren 12tik 2024ko irailaren 11ra gainditu badira, egun biak barne.

#### **Hirugarrena. — *Oinarri arautzaileak***

Bizkaiko Foru Aldundiaren 172/2023, Foru Dekretua, azaroaren 16koa. Honen bidez, 2023ko irailaren 12tik 2024ko irailaren 11ra bitartean kirol prestakuntza gainditu duten kirol teknikarientzat Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak ematen dituen beken oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

#### **Laugarrena. — *Zenbatekoa***

Deialdi honetan araututako beka emateko aurrekontuaren muga ehun eta berrogeita bost mila eurokoa (145.000 euro) da, eta honela banatuko da urtez urte:

- 2023. urtea: 0,00 euro.
- 2024. urtea: 145.000 euro.

#### **Bosgarrena. — *Eskabideak aurkezteko epea***

Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera izango da 2024ko irailaren 20ra arte, azken egun hori barne.

Bilbon, 2023ko azaroaren 16an. — Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Leixuri Arrizabalaga Arruza